

- **BALIABIDEAK:**

Gure proiektuak arrakasta izan dezan **funtsezkoak** diren **baliabideak** honako hauek dira:

Lehenik eta behin, **baliabide fisikoen** aldetik, bilerak eta lanak egin ahal izateko, lokal bat izango dugu, eta, bertan enpresa osatzen dugun kideak elkartuko gara. Lokal horretan, enpresako kideak lana aurrera ateratzeko hainbat baliabide edukiko ditugu, esaterako, altzariak, ordenagailuak, mugikorrak, dokumentuak, estudioa...

**Baliabide intelektualen** aldetik berriz, gure kideen modari buruzko jakinduria kontuan hartuko dugu, hainbat moda profesionalen laguntza ere edukiko dugu eskuragarri eta beste laguntza bat jasoko dugu aplikazioak diseinatzen dakien profesional batengandik.

**Giza baliabideak** ere funtsezkoak dira gure proiektua aurrera eramateko eta taldeko kide bakoitzak bere funtzioa izango du:

- Ainhoa Gonzalez:
  - Publizitatea eta marketinean ondo moldatzen da eta beste erakunde publikoekin harremanetan jartzeko gai da.
- Maria Revilla
  - Aplikazioaren diseinatzen aurreratua da. Webgunea haren esku egongo da, azken nobedadeak bertan jarritz.
- Irene Gaztañaga:
  - Modan taldeko espezializatuena da eta haren look-ak egiteko jakinduriaren bidez, aplikazioan daude konjuntioak sortuko ditu.
- Garazi Olivan:
  - Teknologiaren munduan jakinduria handia du eta horren bidez aplikazioan sor daitezken arazo teknologiko gehienak konpontzeko gai izango da.
- Nora Odriozola:
  - Teknologia erabili eta ulertzeko erraztasuna handia du eta hau gutxi balitz, ekonomiaren arloa menperatzen du.

Azkenik **finantza baliabideen** kasuan hainbat aurrezki ditugu gure proiektua aurrera atera ahal izateko.

Azoka solidario bat egingo genuke, gure bigarren eskuko arropa saldu eta bertan lortzen dugun dirua aplikazioan inbertituko genuke. Elkarte batzuk diru jakin bat emango digute laguntza bezala gure proiektua aurrera ateratzeko eta errazagoa

izateko, esaterako Ordiziako Merkatari Elkarateak diru kopuru jakin bat emango digu gure proiektua aurrera ateratzeko.

Gure proiektu arrakastatsuagoa izateko hainbat pertsona famatuk gure produktuak publizitatuko dituzte, beraz jendeak ikusi egingo du eta jende gehiagok eduki, diru gehiago lortu dezakegu. Beste alde batetik promozio kanpainak egingo ditugu erabiltzaileen laguntzaz eta trukean erabiltzaileei premium baliabideak emango zaizkie guri laguntzeagatik. Gainera lehen 500 erabiltzaileek 3 hilabetez premium aukerak eskuragarri edukiko dituzte doan eta hori gantxo ezin hobe izango da bezeroek aurrerago ordaintzen jarraitzeko.